

Asterako berri ona



Ur bizia

*Gaurko ebanjelioaren (Jn 4, 5-42) luzera dela eta, iruzkina-
ren jarraian atxiki dizuegu. Poliki eta tentuz irakur ezazue,
Jesusekin izandako elkarrizketa moduan*

Ikuspuntu materialetik begiratuta, giza egoerarik larrienetakoa da ur falta. Urik gabe, lurra antzu bihurtzen da, eta hidratazioa galtzen du gorputzak.

Israelgo herriari basamortuan ura falta zitzaionean, lur jota geratu ziren denak: ez zuten urik, eta Egiptoko esklabutza garaiaren mira izan zuten. Handik askatu zituenaz gaizkiesaka, ez ziren Jainkoaz fio: “*Jauna gurekin dugu, bai ala ez?*”. Unean uneko ezinegonaren erruz, Jainkoari zor zioten guztia ahaztu zuten israeldarrek. Eta Jainkoak urrun zirudien. Esperantza eta bizitza hiltzen ditu egarriak.

Baina Jainkoa ez zebilen urrun: ura bidali zien. Nahi genuke mirari hura egun ere gertatzea, Afrikan eta Asian lehortea pairatzen duten herrialdeetan alajaina. Baina elkartasunari dei egiten dion egoera da. Gizakiek euren irudimena eta baliabideak biziaren alde behar baitituzte erabili, eta ez suntsitzeko eta herioa zabaltzeko bide gisa.

Ebanjelioan, Jesus bera da egarri, eta ura eskatzen dio emakume samariarrari -. Modu horretan, egarri handiago bat erakusten dio emakumeari, ur materialaren egarria baino are sakonagoa: *Jauna, emadazu ur horretatik, berriro egarri ez nadin.*

Jesusek ulertzen duela senti du emakumeak, eta hark eginiko harrerak erakusten dio bere egarria ez duela putzuko urak asetuko, Jesus bera den urak baizik. Izaki espirituala da pertsona, eta, pertsona oso izateko, nahitaz garatu behar du espirituari dagokion zatia.

Horregatik galdetzen dio Jesusi zein modutan gurtu behar den Jainkoa. Jesusek erantzun: “Jainkoa zure bihotzean dago. Aita ez da leku jakin batean gurtu behar, *egiaren eta espirituaren arabera* baizik”.

Gu tenplura joan ohi gara Jauna gurtzera, eta tenpluaren premia dugu elkarri Jauna gurtzen laguntzeko. Harelere, *bihotzean* ere gurtu behar dugu. Harekin zuzenean harremana izateko gonbitea luzatua zait; Haren aurrean naizen bezala aurkeztekoa; zer gertatzen zaidan, zeren beldur eta itxaropena dudan adieraztekoa; kezkatzen edo pozten nauenez mintzatzekoa. Jainkoa nire bizitzaren parte izan dadin hain zuzen. Zalantzak zalantza, beti da garaia Hari esateko: *Jauna, emadazu ur horretatik.*

Bada materiala ez den urik. Ur horren premia dugu: *nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan.*

Samariarraren egarria baretzen du, hain justu, alde zuzenetik egarri izan den eta edaria eskatu duenak. Ernesto Sabatok (1911-2011) zioen: “Garai ilunetan, gauz ibiltzen jakin dutenek laguntzen digute”. Egari garaietan, egarri izan denak eskaintzen digu edaria, bideko ur geldietan lotu ez denak alegia. Egarriz hil ez dadin, ura eskatzen du, eta, aldi berean, agortezina den ura eskaintzen.

Inazio Otaño SM

Emailgelio Año III nº 167 del 19 de marzo de 2017
Tercer domingo de Cuaresma (A)